# Anborenlagunak










**Lekuan lekuko lagunak**

# Zozketak eta sariak, Anbotoren Lagunek emandako babesa eskertzeko modu bat

Komertzioen eskutik, sariak zozkatzen ditu ANBOTOk: bidaiak, dastaketak, etxetresnak…

**DURANGALDEA**
Anbotoren Lagunen komunitatea handitzen doa. Astekaria eta webgunea doan irakurri ahal dira, baina asko eta asko dira proiektuari ekarpen ekonomikoa egiten diotenak, urtean 30 euro emanda. Euskarazko hedabideari etorkizunera begiratzen laguntzen diote horrela.

Ehunka lagun horien babesa estimu handiz jasotzen du ANBOTOk, eta euren ahaleginaz jabe izanda, eskertzeko modu bat proposatzen du zozketa eta sarien bidez. Durangaldeko eta kanpoko hainbat komertzioren partaidetzari esker, opariak zozkatzen ditu: bidaiak, asteburupasak, dastaketak, jostailuak, gimnasiorako bonuak, etxetresna elektronikoak, kultur ikuskizunetarako sarrerak, liburuak…

**Deskontuak**
Horrez gainera, Anbotoren Lagun direnek abantailak eta deskontuak jaso ahal dituzte komertzioetan, komunitateko partaide direla egiaztatzen duen txartela erakutsita.

Gura duten guztiek eman ahal dute izena Anbotoren Lagun bilakatzeko.



Izaskun Ugalde Lauzirika
**DURANGO**

**Anbotoren Lagunen artean zozkatutako sari potoloena Izaskun Ugalderi egokitu zaio: Andaluziara bidaia.**

**Zelan hartu zenuen saria?**
Sorpresa handia izan zen. Ez nuen inolaz ere espero Andaluziara bidaia guri tokatzea.

**Egin duzu bidaia?**
Ez dugu joateko aukerarik izan. Irailerako utzi dugu. Almeriara joango gara, 10etik 17ra.

**Gogoratzen duzu noiz egin zinen Anbotoren Lagun?**
Ez dut akorduan. Urte batzuk badira. Merezi du, euskaraz delako eta formatua ere gustuko dudalako. Euskarazko hedabide gutxi daude, eta bultzatu egin behar ditugu.

**Zer da ANBOTO astekaritik gehien gustatzen zaizuna?**
Dena gustatzen zait. Informazio guztia interesekoa da. Astekaria etxean jasotzen dudanean, azalari eta kontrazalari begiratzen diet lehenengo. Ale horretan idazten duten kolaboratzaileen atalei ere begiratzen diet.



Aitor Zuberogoitia Espilla
**DURANGO**

**Mondragon Unibertsitateko irakaslea da, eta gertutik ezagutzen ditu hedabideen erronkak.**

**Asteburupasa bat talasoterapia zirkuituagaz tokatu zitzaizun. Gustura?**
Oso ondo etorri zitzaigun. Umeak aititagaz eta amamagaz utzi, eta geu bakarrik talasoterapiara joateko aitzakia perfektua izan zen. Gainera, institutu sasoiko lagun batzuk ikusteko aprobetxatu genuen.

**Zelan ikusten duzu kanpaina?**
Ikerketarik gehienek diote prentsaren krisiari aurre egin diotenak inguruan komunitate bat sortzen asmatu dutenak direla. Produktuaz aparte, beste gauza batzuk ere antolatu izan dituzte. Eta kanpaina hau eskema horretan bete-betean sartzen dela uste dut.

**Noiztik zara Anbotoren Lagun?**
Orain 7 bat urte etorri ginen Durangora bizitzen, eta bertakotzen hasteko, argi geneukan ANBOTO oso tresna eraginkorra izango zela. Gero, kanpainaren berri izatean, bultzatu egin behar genuela ikusi genuen.



Mikel Petite Guenaga
**ABADIÑO**

**Traña-Matienako Petite liburudendan aspalditik jasotzen dute ANBOTO, eta, gainera, lagun ere badira. Mikelek bere esperientziaren berri eman digu.**

**Zer lortu duzu Anbotoren Lagunak kanpainari esker?**
Iaz pultsometro bat tokatu zitzaidan zozketan. Egia esan, ondo etorri zait; kirola egiten dut eta erabiltzen dut.

**Noiz eman zenuen izena?**
Nik uste, kanpaina hasi eta gutxira egin ginela Anbotoren Lagun. Hemen inguruko astekaria da, euskarazkoa, eta beti irakurri izan dugu. Beraz, laguntzeko bide bat zelakoan eman genuen izena. 'Eraz' ere irakurtzen genuen, eta gero ANBOTO.

**Zozketekin egiten den eskaintza ona dela uste duzu?**
Batez ere egitasmoari laguntzearren parte hartzen dugu. Azken batean, hedabide euskaldun gutxi dago. Baina eskaintza ona da, bai. Laguntzeko ideia horri sariak gehituz gero, jendea animatu ahal dela uste dut.



Ane Elordi Alburquerque
**ZORNOTZA**

**AEKn euskara irakaslea da 26 urteko zornotzarra. "Euskarazko kalitatezko kazetaritza bultzatzeko" helburuagaz egin zen Anbotoren Lagun, iaz.**

**Anbotoren Lagunen artean zotz egindako sari bat tokatu zaizu, ezta?**
Bai, Durangoko San Agustin kulturgunean antzezlan bat ikusteko sarrera bi tokatu zitzaizkidan, Anbotoren Lagunen artean egindako zozketa batean. Pozgarria izan zen oparia: denoi gustatzen zaigu noizbait zerbait tokatzea. Ni ezin izan nintzen joan, baina aitari eman nizkion sarrerak, eta bera joan zen, lagun bategaz.

**Gogoratzen duzu noiz erabaki zenuen Anbotoren Lagun egitea? Zerk eraman zintuen Anbotori modu horretan laguntzera?**
Uste dut iaz izan zela. Durangaldeko berriak euskaraz eta kalitatez eskaintzen dizkigu ANBOTOk, eta proiektu hori bultzatu gura nuen. Zornotzan, gainera, ez daukagu euskaraz gertuko albisteak jasotzeko beste bitartekorik, eta inportantea deritzot ANBOTOk egiten duen lanari.



anboto

DURANGALDEKO ASTEKARIA
2017ko maiatzaren 19a
15. urtea
677. alea
www.anboto.org
TOKIKOM

## Kultura



Izaskun Asuak idatziriko testuan oinarritutako antzezlana estreinatuko du Gora Ta Gora adineko antzezleen taldeak > 13

# Jolasa ala jokoa?

Zenbait futbol talde beste klub batzuetako umeak fitxatzen ari direla eta, jokabide horren kontra daudenek plataforma sortu dute. Formakuntzaren gainetik lehia jartzen dutela salatu dute. Gurasoengan ere jartzen dute erantzukizuna, "azken erabakia euren esku dagoelako". > 18-19



Argazkia: Lehior Elorriaga

## Hobi komun bat aurkitzeko indusketa egin dute Elorrion

Aranzadi elkarteko kideak indusketa lanetan ibili dira, asteon, duela 80 urteko bonbardaketan hildako elorriarren gorpuak aurkitzeko.

Elorrioko Udala eta urte hasieran herrian sortu zen talde bat memoria historikoa lantzen dabiltza azken hilabete hauetan. Elorrion, Santa Lutzia ermita inguruan, egindako lehenengo indusketan gorpurik aurkitu ez duten arren, memoria historikoa lantzen eta herritarren testigantzak batzen jarraituko dutela adierazi du Idoia Buruaga Elorrioko alkateak. > 10



**Durango > 8**
Babeseko 48 etxeren giltzak jabeei emateko prest ditu udalak

**Zornotza > 7**
Jan Alai pintxo lehiaketa eguaztenean abiatuko dute

**Iurreta > 6**
Mintzopotea antolatuko dute euskara kalera ateratzeko

**Mañaria > 11**
Artisau, elikadura eta landareen azokan 20 postu jarriko dituzte

## Herririk herri

# “Eskoletako jantokiak erregulatzen dituen araudia aldatzea da jaiaren aldarrikapena”

### Ekainaren 10ean Abadiñon egingo den jaialdiaren nondik norakoak azaldu ditu Berton Bertokoak

**DURANGALDEA** M. Onaindia
Durangaldeko eskola jantokietan bertako eta sasoiko produktuak jatearen aldeko dinamikak, Berton Bertokoak, egun osoko egitaraua prestatu du ekainaren 10erako, euren eskakizunen bozgorailu izan dadin. Eguaztenean egin zuten aurkezpena, Abadiñon, jaia ospatuko den lekuan, sindikatuek eta ikastetxeetako zenbait zuzendarik babestuta. “Eskoletako jantokiak erregulatzen dituen araudia aldatzea da jaiaren aldarrikapen nagusia”, adierazi zuten dinamikako kideek.

> ”Datorren ikasturtetik aurrera, bertako eta sasoiko produktuak eskaintzeko garaia da”

Kontua da Eusko Legebiltzarrak 2000. urtean onartutako legeak ezartzen duela zelan gestionatu behar den jantokietako zerbitzua. Catering enpresen esku dago, eta ikastetxeek ez dute eskumenik erabakiak hartzeko. Zerbait desberdina egin gura izanez gero, laguntza publikoa galduko lukete zentroek. Duela 17 urtera arte ikastetxe bakoitzak zeukan bere jantokiaren ardura, eta Berton Bertokoako kideek horixe gura dute, eurek erabaki ahal izatea zer zerbitzu eman, eta zelan. Salatu dutenez, “2000. urtetik hona kalitatea bajatu” egin da. “Datorren ikasturtetik aurrera, bertako eta sasoiko produktuak eskaintzen hasteko garaia da”, aldarrikatu diete erakunde publikoei.


Sindikatuetako ordezkariekin eta ikastetxeetako zuzendariekin egin zuten agerraldia, Abadiñon.

> 17:00etan Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna egongo da, eta 18:00etan Dj Bull

**Goizetik hasita**
Ekainaren 10ean goizetik hasiko da jaia: puzgarriak, tailerrak, artzain txakurren erakustaldia, ekoizleen azoka, herri bazkaria... 17:00etan Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna egongo da, eta 18:00etan Dj Bull.

## Lan gatazka AKT Plasticosen, tratua Wisiden

**DURANGALDEA** M.Z. / J.D.
“Lan-jazarpena eta lan karga izugarriak” salatu ditu Zornotzako AKT Plásticos enpresako batzordeak. “Egunero ezartzen ditu zigorrak, eta epaiketak galtzen baditu ere, zuzendaritzak etengabe zigortzen ditu beheko mailetan dauden lan taldeak”, batzordearen esanetan.

Bestalde, Elorrioko Wiside Telecom enpresako zuzendaritza eta langileak aurreakordio batera iritsi dira, eta greba deialdia eten dute.

## Kirolean euskara erabiliko dute hainbat klubek

**DURANGALDEA** M.O.
Amankomunazgoak bultzatuta, kirolean euskara indartzeko egitasmo bat jarri zen martxan 2014an. Aurten ere hainbat klubek egin dute bat; atxikimendua erakusteko, argazkiak atera dituzte, eta 35 bat ikusgai daude *durangaldeaeuskaraz.eus* webgunean. “Jarduera fisikoa gazte nahiz helduen aisialdiko ekintza nagusietakoa da, eta garrantzitsua da kirola euskaragaz uztartuta agertzea”, adierazi dute eskertuta antolatzaileek.

## Bigarren eskuko produktuen azoka egingo dute bihar

### Arratsaldean antzerki saioa izango da elizan

**IZURTZA** J.Derteano
Izurtzako Udalak bigarren eskuko produktuen azoka antolatuko du zapaturako. Pilotalekuaren luze-zabala liburu, arropa eta bestelako produktuekin beterik egongo da 10:00etatik 14:00etara bertaratzen diren erosleen zerbitzura.

Azoka ez da eguneko ekimen bakarra izango. Arratsaldeko zazpi eta erdietan Muxika eta Ibarruriko emakumeek antzeztutako *Gure Etxe Bakarra* lana ikusteko aukera dago Izurtzako elizan. Sarrera doakoa da. Emakumeek azken 80 urteetan izan duten bizimoduari buruzkoa da. Hiru neskatilek abiaraziko dute istorioa argazki zahar batzuk aurkitzean. Neskatila horiek amonari galdezka hasiko dira.


Aurretik ere egin izan dute bigarren eskuko azoka Izurtzan.

anboto komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org
2017ko maiatzaren 19a
14. urtea - 677. alea
**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda. **Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri. **Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta. **Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri. **Publizitatea:** Itxaso Martinez de Arenaza Yarza eta Nagore Txintxurreta Isasi. **Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urtiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, eta Maialen Zuazubiskar Gallastegi. **Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa. **Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.
Lege gordailua: BI-2268/01
ISSN: 1578-7028
Tirada: 11.500 ale

LAGUNTZAILEAK
Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

# Eguaztenean Jan Alai lehiaketa hasiko dute, 32 pintxogaz

Herritarrek emandako botoekin aukeratuko dute irabazleetako bat



Domeka eguerdira arte egongo da pintxoak dastatzeko aukera; iluntzean sari banaketa egingo dute.

**ZORNOTZA** Joseba Derteano

Datorren asteko eguaztenetik domekara Jan Alai pintxo lehiaketa egingo dute Zornotzan. 32 taberna edo jatetxek euren pintxorik onenak prestatuko dituzte eta, urtero legez, herritarren botoekin aukeratuko dute irabazleetako bat.

Iaz 44 establezimenduk parte hartu zuten. Aurten 12 gutxiago dira. Lehiaketa “gogorra” dela azaldu du Andoni Agirrebeitia alkateak, eta establezimenduei “sakrifizo handia” eskatzen dien lana dela. Hala ere, parte-hartze kopuruak “oso inportantea” izaten jarraitzen duela azpimarratu du. Pintxoen prezioa 1,5 eurokoa izango da, iaz baino 20 zentimo garestiago.

Eguaztenean, 19:00etan, hasiko dute lehiaketa. Eguenean, barikuan eta zapatuan 12:00etatik 15:00etara eta 19:00etatik 22:00etara egongo da martxan. Domekan, berriz, eguerdira arte bakarrik. Ondoren, 20:00etan, sari banaketa ekitaldia egingo dute Zelaieta Zentroko auditorioan. Adituek osatutako epaimahaiak aukeratuko du irabazle bat, eta herritarrek emandako botoek erabakiko dute bestea. Establezimendu berak ezingo dituela sari biak irabazi da aurtengo nobedadeetako bat: epaimahaiaren eta herritarren hautua bera bada, herritarren zerrendako bigarrenari emango diote saria atal horretan. 1.000 euro eta txapela jasoko ditu irabazle bakoitzak, eta 10 pintxorik onenen zerrenda ere jakinaraziko dute. Zerbitzaririk onenaren saria nork irabazi duen ere esango dute.

### Lehiaketako sistema

Lehiaketako sistema urteroko bera da. Establezimenduak bost gunetan banatuko dituzte. Herritarrek gune bakoitzeko hiru pintxo dastatu beharko dituzte gutxienez, gero euren botoa eman ahal izateko. Lehiaketan parte hartzen dutenen artean 500 euroko saria zotz egingo dute. Gainera, pintxo guztiak dastatzen dituztenen artean 100 euroko bost txartel zotz egingo dituzte, Dendariak elkartearen establezimenduetan pintxoen truke erabiltzeko.

## Kurdistan eta Sahara berbagai Ziztada guneko urteurrenean

**ZORNOTZA** J.D.

Ziztada gunearen bigarren urteurrena ospatzeko, ekitaldi-sorta antolatu dute datorren aste osoan zehar. Martitzenean, 18:30ean, merienda autogestionatua antolatuko dute. Hurrengo egunean, 19:00etan, Kurdistan bertatik bertara ezagutu duten Durangaldeko brigadistek hitzaldia eskainiko dute. Eguenean Saharaen gaineko hitzaldia aurreikusi dute, 19:00etan. Azkenik, barikuan, 19:00etan, ‘Euskal Herria libre eta gero zer?’ izeneko eztabaida-hausnarketa irekia egingo dute lehenengo, eta Axel Luzarragak eta Koiuk kontzertua eskainiko dute ostean.

Axel Luzarragaren eta Koiuren kontzertuagaz amaituko dute ospakizuna barikuan





Iazko MIntzopotean euskaragaz duten harremanaren inguruan egin zuten gogoeta ekimeneko parte-hartzaileek. Elhuyar.



Euskara herriko kaleetara ateratzeko helburuagaz 30 bat herritar batu ziren iaz.

# Euskara kalera ateratzeko gonbita egingo du II. Mintzopoteak

Maiatzaren 26rako egin dute hitzordua, Dantzari auzunean, 19:30etik 21:30era

**IURRETA** Aitziber Basauri
Euskaldun berriak eta jatorri askotariko bizilagun euskaldunak erakartzea. Horixe du helburu hurrengo maiatzaren 26an egingo duten II. Mintzopoteak. Dantzari auzunean egingo dute hitzordua, 19:30etik 21:30era —euria eginez gero, Askondo kaleko aterpean—.

Iaz antolatu zuten lehenengoz Mintzopotea. Arrakasta izan zuen Iurretako Udalak onartutako Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (2016-2019) barruan antolatutako ekimen horrek, eta 26 herritar elkartu ziren, World Kafe metodologia erabilita, modu eroso eta atseginean, euskararen inguruan berba egiteko.

Elhuyar Aholkularitzak lagunduta, Euskararen Aholku Batzordeak antolatutako Mintzopoteak kalera atera gura du euskara eta, aurten, beste ikuspegi bat landu gura izan dute antolatzaileek. Horretarako, euskaldun berriak eta jatorri askotariko bizilagun euskaldunak erakarri gura dituzte. “Berbetako eta lagunarterako gogoa” behar da, antolatzaileen hitzetan. Umeentzat begiraleak ere egongo dira II. Mintzopotean.

## Haritzak zergatik moztu diren esango du Aldundiak

Lau haritz amerikar bota dituzte egur-sortak egiteko

**OTXANDIO** J.D.
Bizkaiko Aldundiko Txomin Diaz eta Carlos Uriagereka teknikariek hitzaldia eskainiko dute gaur, 19:00etan, kultur etxean. Mendi publikoetan basogintzari buruz dituzten irizpideak azalduko dituzte. Tartean, azkenengo egur-sortak egiteko Olazar inguruan bota dituzten haritz amerikarren gaineko azalpenak emango dituzte. Izan ere, udaletxean kexa bat izan da 30 bat metroko lau haritz bota izanagatik. Udal ordezkariak ados daude Aldundiaren irizpideekin, eta herritarrek haien ahotik jakitea gura dute. Ez direla autoktonoak, inguruan kimu berriak dituztela eta inguruko umedadearen ondorioz jausteko arriskua dutela dira arrazoiak.

## Euskaraz irakurtzeagatik sariak Atxondon

**ATXONDO** M. Zuazubiskar
Martxoaz geroztik martxan dagoen *Irakurri, gozatu eta oparitu* kanpaina bukatzear dagoela, Esti Urizar Atxondoko liburuzainak dei egin die herritarrei euskarazko liburuak irakurri ditzaten. Liburuzainak adierazi duenez, euskaraz irakurtzeagatik %35eko deskontu txartelak eta 30 euroko txeke bat irabazteko aukera daukate herritarrek.

## Juan Carlos Irizar eta korala entzungai izango dira

Kontzertu solidarioa egingo dute, elizan

**ZALDIBAR** I.E.
Esther Hernandezen zuzendaritzapean, Zaldibarko Koralak eta Juan Carlos Irizar pianistak kontzertu solidarioa eskainiko dute, bihar, 20:00etan, Zaldibarko elizan. Arrasateko Aita Menni eta Monroviako (Liberia, Afrika) Benedict Menni ospitaleek bultzaturiko We Are Like You programa laguntzera bideratuko dute ekimen horregaz biltzen duten dirua. Hain zuzen ere, ebolak Liberian erasandako herritarrei laguntzera eta osasun mentalari loturiko proiektu bat abian jartzera bideratuko dute bihar Zaldibarren bilduko duten dirua.

Bost euroko sarrera izango du kontzertuak, eta merkatu solidarioa ere antolatuko dute.





*Etxebizitzak salgai 1, 2, 3 eta 4 logelatakoak*



KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

*Durangoko herrigunean*

*Energia eraginkortasun handiko etxebizitzak*

*Hiriko txaletak*

*Oiz mendira begiratokiak*

*Leku zabalak*

Etorri ikustera!

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673

Kontsultatu beste aukerak Iurretan, Elorrion eta Durangon

# Babeseko 48 etxeren giltzak jabeei emateko prest dituzte

Faustegoienako babeseko 48 etxeetatik 7 gazte alokairurako izango dira




Etxe eta urbanizazio berriekin, itxura berria du San Faustok.

**DURANGO** Markel Onaindia

San Faustoko herritarrek bizilagun berriak edukiko dituzte laster. Izan ere, Faustegoienako babeseko 48 etxeren giltzak jabeei emateko prest ditu udalak, eta datozen asteetan egingo dute entrega. 48 horietatik 7 gazte alokairurako izango dira; horiek geroago emango dituzte, arautegia landu eta adostu behar dutelako oraindik.

Berez, promozio osoa 118 etxetakoa da, hiru fasetan garatzeko. Bigarrenekoak ere kasik guztiak salduta daude, eta hirugarrena martxan ipiniko dute. Interesa dutenek Durango Eraikitzen zerbitzura jo behar dute. Udalaren promozio publikoak "oztopoak eta arazoak" izan ditu Aitziber Irigoras alkateak aitortu duen bezala, hainbat herritarrek etxeei uko egin zietelako. Argia ikusita, "pozik" agertu da alkatea, eta "gazteen autonomia" sustatzeko balioko duela dio Pilar Rios alkateordeak.

Proiektua amaitzean, guztira 17 izango dira gazte alokairua sustatzeko erabiliko diren etxebizitzak.

### Obren amaiera

Etxe eta bizilagun berriez gainera, San Fausto auzoak itxura berria ere badauka 18 hileko obren ostean. 3,9 milioi euro inbertitu

Proiektua amaitzean, guztira 17 izango dira gazte alokairua sustatzeko erabiliko diren etxebizitzak

dituzte. Zerbitzuak konpontzen egin dute lanik handiena: ura, argindarra, gasa... Gainera, auzo "atseginagoa eta irisgarriagoa" bilakatzea ere bazen helburua. Espaloiak zabaldu dituzte, atarietarako sarbideak erraztu, argiztapena hobetu, jolas parkea berritu, trafikoa egokitu...

Obren amaiera ospatzeko, jaialdia egingo dute hilaren 27an. Umeen jolasak, bazkaria eta dantzaldia egongo dira.

# EAJ eta PPren arteko akordioa kritikatu dute

50 bat lagunek protesta egin dute Ezkurdin

**DURANGO** M.O.

Madrilgo gobernuaren aurrekontua aurrera atera ahal izateko, EAJren babesa edukiko du PPk, eta akordio hori ez da batzuen gustukoa izan. Eguaztenean, esaterako, horixe kritikatzeko, elkarretaratzea egin zuten 50 bat lagunek Ezkurdin, EH Bildu eta Herriaren Eskubidea alderdiek eta Ernai gazte erakundeak deituta.

PPgaz akordioak garatzea "mafia neoliberal eta ustelaren alde egitea da", protestaren deitzaileen ustez. "Ustelkeriaren alderdia salbatzea" egotzi diete jeltzaleei.




EH BIlduk, Herriaren Eskubideak eta Ernaik deitu zuten mobilizaziora.

# Komertzioetan nagusienganako arreta hobetzeko asmoa dute

Hamaika dendatako arduradunek programa batean parte hartu dute



Agiriak banatzeko ekitaldia, martitzenean, udaletxean.

**DURANGO** M.O.

Durangoko Udalak sustatuta, herriko nagusienganako arreta hobetzeko asmoa dute hainbat komertziok. Hain zuzen ere, hamaika dendatako arduradunek heziketa programa batean parte hartu dute, eta martitzenean jaso zuten horren agiri edo errekonozimendua. Programak zabalik jarraitzen du.

Pilar Ríos alkateordeak azaldu du nagusi batzuek arazoak izaten dituztela, adibidez entzuteko, baina erosketak egiteak euren autonomia handitzea dakarrela. Hori da programaren funtsa. Gainera, nagusiak "komertzio txikiaren erosle fidelak" izatea nabarmendu du Aitziber Irigoras alkateak.







# Isaac, Petralanda familiari bizipoza ekarri dion umea

## Semea auto istripuan galdutako bikoteak Togoko ume bat hartu du, ebakuntza baterako etorria

**DURANGO** Markel Onaindia

Kontxi Gonzalezen eta Ricardo Petralandaren bizitza eten egin zen Alesander semea auto istripuz hil zenean, 2015eko ekainaren 13an. Aitak dioen lez, "naturaz kontrakoa" egin behar izan zuten, semea agurtzea. Oinazea ariman daramate biek, eta seme gaztearen hutsunea bihotzean. Azken urtebetean, bizipoza ekarri dien Isaac Tawo 3 urteko ume togotarra dute etxean; osasun arazo bategatik etorri zen hona, Gizakien Lurra Gobernuz Kanpoko Erakundearen bidez.

"Inor ez dago prest seme bat galtzeko. Osteko egun bakoitza aurrekoa baino gogorragoa zen, gero eta gehiago kostatzen zen jaikitzea. Hutsune handiegia geneukan, eta, terapiaz aparte, zerbait egin behar genuen", azaldu du aitak. Bikotearen lagun bat dabil lanean GKE horretan, eta umea denboraldi batez hartzeko aukera suertatu zitzaien.

### Ebakuntza, egina

Bere anaia nagusia lez (hil egin zen), Isaac uzki barik jaio zen, eta poltsa ipini zioten. Euskal Herrian, uzkia berregin diote bizitza normalagoa egin dezan. Ricardo eta Kontxirenean hartu du babes, eta San Antonio-Santa Rita ikastetxean egin ditu lagunak, baita euskara ezagutu ere.



Isaac, Ricardo eta Kontxi, euren etxean.

Umea uda inguruan bueltatuko da Togora. "Argi dugu aita eta ama itxaroten dituela, eta sufritzen daudela", dio Ricardok. Solasaldian zehar, bere gurasoen argazki bat erakutsi diote Isaaci.

"Esperientziagaz oso pozik nago, ez naiz damutzen. Denbora batera beste bat ekartzea ez dugu baztertzen", dio Kontxik. Gizonak dio munduarekiko "pentsaera aldatzea" ekarri diela esperientziak.

Alesander ez dute ahazten, ezta ahaztu gura ere. Bera harro oroitzen dute, Isaac txikiaren bizipozean.

## 'Boni' eta beste martxanterak gogoan

**DURANGO** M.O.

Andra Mariko elizpean martxanterak omentzeko oroigarri bat ipintzea eskatuko du EH Bildu koalizioak datorren osoko bilkuran. Gozokiak saltzen zituzten emakumeak ume eta familien erreferentzia izan ziren, belaunaldi bat baino gehiagoren memoria kolektiboa konpartitzeraino. Egunero euren postua ipini eta hainbaten "bizitza gozatu" zuten, koalizioak nabarmentzen duenez. Oso ezagun egin zen Bonifacia *Boni* Macarron, 60 urtez hantxe egon zena.

EH Bilduk emakume langileak eta tokiko komertzioak ere omendu gura ditu ekimenagaz. Martxanteren familiekin berba egin du moziorako, eta oroigarria ipintzeko ere hala egitea eskatuko du.



Kontsumo txikiko farolak ipiniko dituzte baserri inguruetan.

# Auzoetako argiteria hobetuko du udalak

## Eskaria egiten dutenei auzoetako argiztapena hobetezeko diru-laguntza emango die udalak

**ABADIÑO** I.E.

Martxoko udalbatzarrean, baserri auzoetako argiztapena hobetzeko diru-laguntza emateko ordenantza onartu zuen Abadiñoko Udalak, aho batez. Argindarraren sare publikora lotu barik dauden baserri auzoetako argiteria hobetzea gura dute, diru-laguntza horren bitartez. Eskaria egiten dutenei euren baserri inguruan farola berriak ipintzeko laguntza emango die udalak. Farolak ipintzeko gastua, kontsumo txikiko farola horiek urtean duten 45 euroko kostua eta horiek mantentzea lekarkeena bere gain hartuko du Udalak.

Iñaki Rekalde da Abadiñoko Udaleko Landa Garapen, Merkataritza eta Turismo arloko zinegotzia, eta, azaldu duenez, hamahiru eskari jaso dituzte dagoeneko. Gaztelua, Mendiola eta Urkiolako auzotarrenak izan dira apiriletik hona udalak jaso dituen eskariak, eta Landa Garapeneko zinegotziak adierazi duenez, gehiago ere espero dituzte datozen asteetan.

> Iñaki Rekalde Landa Garapeneko zinegotziak azaldu duenez, 13 eskari jaso dituzte apiriletik hona

Iñaki Rekalderen berbetan, datorren astean hasiko da udaleko arkitekto teknikoa eskaria egin duten baserri guneetan farola berriak non ipiniko dituzten aztertzen.



# Gazteentzako jolasgunea egingo dute Berrizburun

Herritarrek tirolinak, sareak... izango dituen jolasgunea gura dute



Berrizburun egingo dute jolasgunea.

**BERRIZ** Maialen Zuazubiskar

Iazko azaroan 2017ko aurrekontuak onartu zituztenean, aurrekontu parte-hartzaileetara 150.000 euro bideratzea erabaki zuten Berrizko Udalean. Joan zen asteko udalbatzarrean, herritarrek hartutako erabakien berri eman zuen Orland Isoird alkateak, eta aurrekontu parte-hartzaileetako diru atalik handiena Berrizburun sortuko duten gune berriak izango duela adierazi zuen.

Otsailean eta martxoan egin zituzten batzarretan, aurrekontu parte-hartzaileetara bideratutako dirua bi zatitan banatzea erabaki zuten herritarrek. Alde batetik, 100.000 euro herri gunera bideratzea erabaki zuten, eta beste 50.000 euroak landa gunera.

Herri gunera bideratutako dirutik 50.000 euro gazteentzako jolasgunea sortzeko erabiliko dute berriztarrek. “Herritarrek erabaki bezala, jolasteko toki bat sortuko dugu umeentzat Berrizburun. Gune honek tirolinak, sareak... izango ditu”, adierazi zuen alkateak.

Horrez gain, Legañon irisgarritasuna bermatzeko, herritarrek arrapalak jartzea erabaki dutela jakitera eman zuen joan zen asteko osoko bilkuran Orland Isoirdek.

> Berrizko Udalak 150.000 euro bideratu ditu aurrekontu parte-hartzaileetarako

## Auzo gunean

Landa guneko 50.000 euroak, berriz, hiru zatitan banatzea erabaki zuten berriztarrek. Hortik, diru atalik handiena Sarrigoititik Andikoarako proiektuak eskuratuko luke. Hau da, 25.000 euro bi auzoen arteko zordanbidea konpontzeko erabiliko dute.

Bestalde, 24.000 euro auzo bideetako seinaleztapena hobetzeko eta animaliak dauden tokiak zeintzuk diren adierazteko erabiliko dituztela jakitera eman zuten.

EAJren eta PSOEren aldeko botoekin onartutako aurrekontu parte-hartzaileetan ez dutela “paso egiten” adierazi zuen Karmen Amezua EH Bilduko zinegotziak. Baina aurrekontu parte-hartzaile hauen parte izan ez zirenez, abstenitzea erabaki zutela adierazi zuen Amezuak.

**2017KO PROIEKTUAK**

| | |
|---|---|
| 1. **Umeentzako jolasgunea: 50.000 euro.** | 4. **Sarrigoititik Andikoarako bidea: 25.000 euro.** |
| 2. **Legañoko irisgarritasuna: 40.000 euro.** | 5. **Auzoetako bideen seinaleztapena: 24.000 euro.** |
| 3. **Barandak herrigunean: 10.000 euro.** | 6. **San Lorentzo ermita atontzea: 1.000 euro** |



Aranzadiko kideak lanean.

# Bonbardaketak utzitako gorpuen bila Elorrion

Hobi komun baten bila dabiltza Santa Lutzia inguruan

**ELORRIO** M. Zuazubiskar

Elorrio bonbardatu zutenetik 80 urte bete diren honetan, Elorrioko Udala eta herriko talde bat memoria historikoa lantzen dabiltza. Aste honetan, lehenengo indusketa lanak egin dituzte Aranzadi elkarteko kideek.

Idoia Buruaga Elorrioko alkateak jakitera eman duenez, bonbardaketako testigantza batzuen arabera Elorrioko Santa Lutzia ermitaren inguruan gorpuak zeuden. Orduan, Aranzadikoekin egon, gunea begiratu eta aztertzea erabaki zuten. Hala ere, lehen lan hauetan, “zoritxarrez”, gorpuzkirik aurkitu ez dutela adierazi du alkateak.

Horrez gain, memoria historikoa lantzen eta testigantzak batzen jarraituko dutela gaineratu du Idoia Buruagak.

> Elorrioko Santa Lutzia ermitaren inguruan ibili dira lanean Aranzadiko kideak

Bestalde, Santa Lutzian hobi komun bat aurkitzen saiatu direla adierazi du Jimi Jimenez Aranzadiko kideak, baina begiratu duten lekuan ez dutela ezer topatu.

## Martxan Ferixa Nausikoetako kartel lehiaketa

**ELORRIO** M. Zuazubiskar

Maiatzaren 31ra arte egongo da epea Elorrioko aurtengo Ferixa Nausikoetako kartel lehiaketara lanak aurkezteko. Udalak jakitera eman duenez, kartelak 70/50 zentimetroko neurria izan behar du.

Udaletxeko HAZ bulegoan utzi beharko dira lanak, eta, jakitera eman dutenez, luma-paperean eta formatu digitalean aurkeztu beharko dituzte parte-hartzaileek.

Epaimahai tekniko baten bidez eta herritarren botoen bitartez erabakiko den Ferixa Nausikoetako kartel lehiaketako irabazleak 500 euroko saria jasoko duela jakitera eman du Elorrioko Udalak.

Kartel lehiaketara aurkeztutako lan guztiak Iturri Kultur Etxean izango dira ikusgai, ekainaren 2tik 16ra bitartean, hain zuzen ere.

Ainoa Peil Abokatua
Zumalakarregi, 4-1 esk · Durango
Tel.: 617 776 720
Ainoa Peil
Zoru klausula · Erreklamazioa aseguru-etxeei
Fakturen erreklamazioa · Dibortzioak · Atzerritartasuna

anboto.org
MUGIKORREAN
Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.
Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.
Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.
Pertsonalizatu, zure herria aukeratuz.

DESKARGATU DOAN !

# Artisau, elikadura eta landareen azokan 20 postu jarriko dituzte

Azokaz gainera, azpigorri arrazako ahuntzen txapelketa errepikatuko dute

**MAÑARIA** J.Derteano
Domekan XXII. Artisau, Elikadura eta Landare azoka egingo dute Mañarian. 10:00etatik 14:00etara bitartean askotariko produktuen gaineko 20 bat postu bisitatzeko aukera egongo da. Gehienak ingurukoak dira: Mañaria, Iurreta, Abadiño, Izurtza, Otxandio… Aurtengo nobedadea txorizoen gaineko postu bat egongo dela da: Urigoitiko txorizoa. Eguerdian 20 bat antxume erre eta pintxotan salduko dituzte (2 euro). Andra Mari dantza taldearen saioa ere egongo da. Azpigorri arrazako ahuntzen Euskal Herriko txapelketa da domekako jaiko beste osagai bat.

### Abesbatzen saioa

Aste Kulturalaren barruan, Bermeoko eta Mañariko abesbatzek eta Durangoko orfeoiak kontzertua eskainiko dute gaur, 20:30ean, Andra Mari parrokian.



Eguerdian antxumeak erre eta pintxotan salduko dituzte.



Joan zen asteburuan artisau-garagardoen azoka egin zuten Mañarian.

## Alex Txikonek Everesteko abentura kontatuko du

**MALLABIA** J.D.
Alex Txikon alpinista (Lemoa, 1981) sekula inork lortu bakoa lortzen saiatu da aurten: neguan eta oxigenoaren laguntzarik barik Everest mendia konkistatzen aurreneko pertsona izan gura zuen. Azkenean etsi egin behar izan zuen, egoera meteorologikoarengatik. Abentura horretako bizipenak Kontzejuzarren eskainiko duen hitzaldian kontatuko ditu, gaur, 19:00etan. Kultur Hamabostaldiaren barruko ekimena da. Munduko mendirik garaienean ez zuen helburua lortu, baina bai beste zortzimilako batean. 2016ko otsailean Nanga Parbat (8.126 metro) neguan igotzen zuen aurrenekoa izan zen, Ali 'Sadpara' pakistandarragaz eta Simone Moro italiarragaz batera. Orduko gomutak ere gogoratuko ditu.

## Asturiasko omenaldirako autobusa, beteta

**GARAI** M.O.
1987ko ekainean Elorrioko salbamendurako txakurren taldeko lau lagun hil ziren Asturiasen, Europako Mendietan izandako helikoptero istripuan, beste hiru lagunegaz batera. Galdutako ume baten erreskatean laguntzera joan ziren. Taldeko hiru elorriarrak ziren, eta bestea garaitarra, Joseba Zabala. Geroztik, eurei eskainitako omenaldia egiten da Covadongako lakuetan, eta aurten ere ipini dute autobusa Garaitik joateko. Antolatzaileek azaldu dute bete dela dagoeneko, baina gura duenak bihar arte eman dezake izena, eta erreserban geratuko da.

Ekainaren 10ean irtengo da autobusa Garaitik, 15:30ean. Cangas de Onisera ailegatu, eta bertako aterpetxe batean egingo dute lo. Domeka goizean izango da omenaldia, eta arratsaldean hartuko dute buelta.

## DURANGALDEA ASTEON

### Emakumeentzako mekanika tailerra, prest

**ZALDIBAR >** Emakumeentzako mekanika tailerra eskainiko dute ekainaren 2an eta 3an. Emakumeen ahalduntzerako antolatzen dituzten ikastaroetako bat da, eta maiatzaren 26ra arte dago izena emateko aukera. Udaletxean, liburutegian edo *berdintasuna@zaldibar.eus* helbidera idatzita eman daiteke izena.

### Veronica Garciak eskuratu du 28. Ipada

**DURANGALDEA >** *Salerosketak be euskaraz* ekimeneko 28. Ipadaren irabazlea Veronica Garcia Tostado izan da. Txente sukaldeak dendak banatutako txartelari esker lortu du saria. 120.732 zenbakia izan da saritutako zenbakia. Ekimen honegaz, komertzioetan euskararen erabilera indartzea da helburua.

### 181.440 euro, herriko elkarteei laguntzeko

**DURANGO >** Udalak 181.440 euro bideratuko ditu herriko elkarteentzat, euskara, kirola eta kultura sustatzeko. Modu horretan, taldeek euren urteko ekintzak garatzeko laguntza edukiko dute. Hilaren 26ra arte eskatu ahal dute diru-laguntza, eta ekainaren 9ra arte euskara sustatzeko ekimenen kasuan.

## SEI HANKAKO MAHAIA

**JULIAN RIOS**
SQ-2D



**Aurrekontuak aurrez grabatuta**

Kudeaketa-adituen arabera, hauxe liteke aurrekontua: diru-sarreren eta gastuen kalkulua eta aurretiazko negoziazioa jarduera ekonomiko familiar batean, negozio, enpresa zein gobernu batean, eta, nola ez, baita udal batean ere. Aurrekontua instituzioen urteko garapenerako tresna da, hurrengo urteko planak eta programak bete ahal izateko. Aurrekontu bat landuta, instituzioek lehentasunak ezarri eta helburuak ebaluatu ditzakete.

Hots, 2017ko aurrekontua gauzatzeko, beharrezkoa da urtea hasi aurretik aurrekontuaren zirriborroa egitea, aurkeztea eta eztabaidatzea, gardentasuna eta herritarren partaidetza kontuan hartuta. Aurrekontu parte-hartzaileak ezinbesteko tresna dira herritarrek gertuen duten instituzioan. Funtsezko bitartekoa da demokrazian, lehentasunezkoa.

Maiatz bukaeran gaude, eta, beraz, ia urte erdi joan da 2017an. Aurrekontu batek dakarrena aztertuta, Durangon aurrekontu parte-hartzailerik ez dagoela ikusiko dugu. Herritarrak baztertuta daude, eta, oro har, ez dago aurrekonturik, jakina.

Aurrekonturik ez egotera, ezin dugu jarduera planik ezarri, ezin dugu lehentasunik finkatu, eta gutxiago horien ebaluazio bat egin. Imajina dezake inork horrela funtzionatzea bere negozio, enpresa edo erakundean? Zer gertatuko litzaioke nahaspila horretako kudeatzaileari?

**Erredakzioan itzulia*

## IRITZIA

**astekaria@anboto.org**
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

### Emakumeak eta genozidioa

Ez zen gerra zibila, genozidioa baizik. 1936ko uztailaren 18tik militar espainol batzuen altxamendua garatu zen, Europako gobernu faxista batzuen laguntzarekin; Errepublikaren aurkako sedizio ekintza bat eta, are okerrago, arma eta babesik gabeko herriaren kontrako genozidio eta gizateriaren aurkako krimenak egin zituzten. Behartutako desagerpen eta fusilatze kopurua ikaragarria da. Euskal Herrian, 9.000ra heltzen da, hau da, biztanleriaren % 4,7. "Fusilatzean bat da hiltzaile, isiltasunean denak" abestu zuen Amets Arzallusek. Gaur egun, Karmelo ikastetxea dagoen lekuan, Bizkaiko Zornotzakoa zen emakume kartzela garrantzitsuenak 1939tik 1947ra bitarte izan zituen espetxe funtzioak. Ez dakigu zenbat emakumek sufritu zuten espetxealdia, baina bai zenbat erail zituzten; 43 emakume eta 10 hilabeteko neskato bat.

Bakea galdu eta gero, zer gertatzen da gaur egun gure herrian? Zornotzako Udalak 2010etik, urtero, maiatzaren 18 inguruan, "gerra zibilean hildako guztiei" omenaldi bat egiten die Zelaieta parkean dagoen plakaren ondoan. Omenaldi horretan genozidioa martxan jarrita demokraziaren aurka altxatu zirenak, eta errepresio bortitza jasan zutenak plano berean jartzen dituzte. Gernika, Durango, Otxandio, Zornotza… bonbardatu zituztenak eta bonba azpian hil zirenak, bortxatzaileak eta bortxatuak, denak berdinak izango balira bezala. Hori gutxienez ez da nire memoria, memoriaren borroka honetan, nirea frankismoaren aurka frontean borrokatu eta fusilatuta hil ziren 15 zornotzarrekin dago, eta emakume izate soilagatik errepresio bortitza sufritu zuten emakume guztiekin. Orduko eta gaur eguneko emakume zapalduen aldean nago, genozidak nor diren eta nor omendu behar den argi daukat.

Xabier Gutiérrez (Zornotza)

**Berbaz**

**Kattalin Saint Marie Bidegain** | Etxauzia proiektuko koordinatzaile nagusia | Landibarre, 1992

# *"Etxauzia euskaldunon etxea izatea gura dugu; sare bat osatu eta harremanak bultzatu"*

Nafartarren Etxea elkarteko kideak Durangoko Plateruena kafe antzokian izan dira, asteon, Etxauzia proiektua azaltzeko

**> BERBAZ** Aitziber Basauri

**Baigorriko Etxauzia erosteko diru bilketa kanpaina berria abiatuko du Nafartarren Etxea elkarteak. Badituzte 100.000 euro, iazko 'Euskaldun bat, euro bat' kanpainagaz batutakoa. Hala ere, 1,5 milioi euro behar dituzte. Irailaren 15era arte dute epea erronka lortzeko eta 'Zabal eta bizi' da aukeratu duten leloa. Askotariko pertsona ezagunen babesa izan dute. Bernardo Atxagarena, Joseba Sarrionandiarena, Pedro Miguel Etxenikerena eta Uxue Alberdirena, esaterako.**



**Etxauzia erosteko diru bilketa hasiko duzue berriro. Erronka handia duzue?**

Hala da, bai. Maiatzaren 20an, bihar abiatuko dugu; *Zabal eta bizi* du leloa. Aski erronka handia da, bai. Baina lehenengo kanpainagaz sostengua lortu genuela ikusi dugu, eta aukeragaz segitzea merezi zuela erakusi zigun jendeak. Euskal Herriko hiriburuetan eta hainbat eskualdetan aurkezpenak egin ditugu proiektua azaltzeko. Etxauziaren berri izan dute, eta, orain, diru bilketa fasea hasita, berriro ekingo diogu. Oso pozik gaude, jende askok proiektua bere egitea eta laguntza ematea lortu dugulako bi urte hauetan. Proiektua aurrera doa eta oraindik gauza asko ditugu egiteko. Lortzeko bidean gaude.

**Durangon izan zarete asteon.**

Bai, Durangaldean ere proiektuaren berri eman gura izan dugu, jendeari Etxauziaren bizilagun izatea proposatzeko, bai laguntza ekonomikoaren bidez, bai eskualdean gure proiektua zabaltzen lagunduz.

**'Zabal eta bizi' lelo horretan proiektuaren helburua batu duzue. Zein da helburu hori?**

*Zabal eta bizi* leloak esagura bikoitza du: Etxauzia herriari, herritarrei zabaltzea gura dugu, baina, aldi berean, biziarazi ere bai, bertan proiektu bat sortuz. Bi hitz horiek ongi laburbiltzen dute elkarteak Etxauzia gaztelurako duen proiektua. 'Bizi' hitzagaz lotuta, helburua da Baigorri aldean, Baxenabarren eta, oro har, Ipar Euskal Herriko barnealdean dinamika bat bultzatzea. Elkarte eta egitura asko dabiltza dinamika bat bultzatu guran, eta horretan gabiltza gu ere. Arlo eta manera desberdinetan, bultzada eman gura diegu Ipar Euskal Herriko barnealdeari eta Baigorri aldeari.

> *"Gaztelu batek duen prestigio hori baliatu gura dugu euskal kulturari bultzada emateko"*

**Ekonomia, kultura eta ondarea dira zutabe nagusiak?**

Bai. Etxauzia baliatu gura dugu, eskualdeari bizia emateko. Ekonomia arloan inguruko enpresen elkarte bat abiatu gura dugu. Orain hasi gara lantzen, eta hemengo enpresen artean harremanak bultzatzea da helburua, lekuko garapen ekonomiko bat bultzatzeko. Helburua da Baigorri inguruko eta Baxenabarreko enpresekin hastea, baina, ostean, Euskal Herriko enpresa eta kooperatiba guztiekin bultzatzea harremanak. Maila horretan Olatukoop-egaz harremanetan ari gara. Kultur arloan ere gura genuke Etxauziaren bidez eskualdeari bultzada bat ematea.

**Kultur erreferente bihurtuz?**

Gaztelu batek duen prestigio hori baliatu gura dugu euskal kulturari bultzada bat emateko. Etxauziako ganbera handia da, ekitaldiak egiteko parada ematen du. Etxauzia Euskal Herriko kultur zentro handien sare batean sartu gura genuke, sortzen diren ikuskizun, kontzertu eta erakusketak Ipar Euskal Herriaren barnealdera ekartzeko. Hartara, kultur eskaintza bat proposatzeko eta kulturari dinamika bat emateko. Etxauziak duen milurteko historiaz baliatuz, ikerketa zentro bat sortzeko ere lanean gabiltza. Nafarroa Behereako, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko historia azaldu gura da Etxauziatik pasatu diren pertsonaia historiko handien bizitzari jarraituz.

**Diasporak ere paper garrantzitsua du Etxauzian?**

Etxauzia zabaldu eta indarrak bildu gura ditugu euskal diasporako jendeagaz. Diasporako euskaldunei leku bat eskaini gura diegu, hona etortzen direnerako. Harrera egingo diegu eta laguntza eskainiko diegu zerbait ikusi edo ezagutu gura badute; jatorria edo familiaren sortetxea ezagutzeko ere bai. Beraien ondare immaterialaren lekukotasuna eta historia bildu gura ditu. Euskal Herriko proiektuen eta eragileen arteko topaketen gunea ere izango da. 'Zabal' hitzak laburbiltzen du hori. Euskaldunon etxea izatea gura dugu; sare bat osatu eta harremanak bultzatu.

**100.000 euro batu zenituzten 'Euskaldun bat, euro bat' kanpainagaz. Baina, erakundeen babes gehiago gura zenukete?**

Hala da. Argi dugu herritarren proiektua izan behar duela, hauek eramana eta egina. Baina dirutza handia da. Enpresa batzuen sostengua ari gara lortzen, baina Euskal Herri osoko enpresetara jo gura dugu; instituzioetara ere bai. Hala ere, norbanako eta euskaldunek proiektuan parte hartzea gura genuke, indarra herritarrena dela eta proiektua eurek eraman dutela aurrera erakusteko. Diasporan ere eskatuko dugu sostengua.

**Historia zabala du Etxauziak.**

Bai. Lehen aztarnak 1200. urtekoak dira. Berriz eraiki zen, zenbait aldiz, baina urteetan Nafarroa Behereako erresumako bizkondeen jauregia izan da. Beltran Etxauz artzapezpikuaren etxea izan zen, Enrike IV.a erregearen kontseilari izandakoarena, eta Charles Chaplin ere hirutan egona da ostatu hartuta, udan. II. Munduko Gerran soldadu alemanek okupatu zuten. Gainbeheran joan zen gero. Hainbat jabe izan zituen, eta bazterrera utzita ere egon zen, 1994an Baionako bikote batek eraberritu arte. Ostatu izan zen, 2003an egungo jabeei saldu arte.

Kultura

# Han eta Temp taldeak dira Arriolan Rock programazioko gaurko protagonistak

Hainbat kanta berri aurkeztuko ditu Han taldeak; eta lehenengoz arituko da Temp bikotea, gaur

**> MUSIKA** Itsaso Esteban

Elorrioko musikazaleek antolatu duten lau datatako kontzertu programazioaren hirugarren hitzorduan elkartuko dira, gaur, Arriolan. Elorrion egun jotzen diren estiloak bildu gura izan dituzte herritarrek osaturiko programazio horretan; Ayatolah eta Sugoi taldeek jo zuten lehenengo kontzertuan, eta Kalibre taldea aritu zen bigarrenean.

Gaur, Han eta Temp taldeen txanda izango da. Arriolan joko dute, 22:30ean hasita. Taldearen bigarren diskoa izango dena prestatzen dabil Han, eta 2015ean kaleratu zuten lehenengo diskoko kantak ez ezik, azken hilabeteetan konposaturikoak ere joko dituzte, Arriolan.

> Musika esperimentala eta inprobisatua eskainiko dute Temp taldeko Aitor Monjek eta Gorka Molerok

Gorka Molero Han taldeko gitarristak Aitor Monje berriztarragaz abiatu duen Temp bikotearen lehenengo kontzertua ere izango da, gaur, Elorrion. Kontzertu "oso berezia" izango da Moleroren berbetan. Musika esperimentala eta inprobisatua eskainiko dute gitarrista biek.



Duela dozena bat urte, Yakuzi taldean elkartu ziren Aitor Monje berriztarra eta Gorka Molero elorriarra.

"Elorrioko musikazaleek antolaturiko programazioan parte hartu beharra zegoela ikusi genuen Aitorrek eta biok", dio Molerok. Dioenez, baina, ez dute erabaki gaurkoaren ostean bikote moduan zuzeneko gehiago joko dituzten ala ez.

Yakuzi taldeak elkartu zituen duela dozena bat urte Molero eta Monje. Ordutik, bakoitza beste proiektu batzuetan ere ibili den arren, beti jarraitu dute elkarregaz jotzeko elkartzen. Moleroren berbetan, "musikalki, oso ondo ezagutzen eta ulertzen dugu elkar".

Taldeko kideek entseguak egiteko ez zutelako kointziditzen, "stand by" egoeran utzi zuten Yakuzi taldea. "Inoiz ez dugu taldea desegin, ezta bukatutzat eman ere. Beraz, edozein monentutan jarri daiteke taldea martxan", dio Molerok.

### Ekainean, laugarrena

Ekainaren 16an amaituko da Elorrioko musikazaleek antolaturiko Arriolan Rock programazioa. Bultz! eta Sermond's taldeen eskutik, Rock & Roll eta punk doinuek beteko dute antzokia egun horretan. Programazio honetako emanaldi guztietan bezala, bost euroren truke sarrera eta edari bat eskainiko diete bertaratzen diren entzuleei.

# Adineko antzezleen hiru obra taularatuko dituzte San Agustinen

Izaskun Asuak idatziriko testuan oinarrituriko obra estreinatuko dute

**> ANTZERKIA** I. E.

Maiatzaren 25ean hasiko dute bi urterik behin egiten duten Adinekoen antzerki jardunaldiaren VII. aldia, Durangon. Lau emanaldi eskainiko dituzte programazio horren barruan, San Agustinen. Durangoko Gora Ta Gora taldearen lan berriaren bi emanaldik itxiko dute zikloa, eta adinekoen beste bi antzerki talde ere arituko dira San Agustinen: Etxebarri eta Gernikako taldeak gonbidatu dituzte.

Maiatzaren 27an estreinatuko du Durangoko Gora Ta Gora adinekoen antzerki taldeak *No hay mal que por bien no venga* antzezlana. 19:00etan izango da estreinaldia, eta baita 28ko bigarren emanaldia ere.

Senarra hil zaion Jacintaren istorioa kontatzen du Durangoko adineko 10 aktorek antzeztuko duten obrak. Taldea zuzentzen duen Izaskun Asuak idatziriko testua da oholtzaratuko dutena. Egilearen berbetan, obra komikoa den arren, osagai hunkigarriak ere baditu.

Etxebarriko taldeak lau antzezlan komiko labur eskainiko ditu, maiatzaren 25ean, 18:00etan; *Ecografía muy húmeda*, *El agua milagrosa*, *El santo de la Isidra* eta *Novios de internet* izenburukoak. Gernikako Arbola Zaharra taldeak, bestalde, *Nunca es tarde* obra eskainiko du, maiatzaren 26an, 18:00etan.

Doakoa da emanaldi guztietarako sarrera, baina Gora Ta Gora antzerki taldeko durangarren emanaldirako gonbidapenak aurrez eskuratu beharra dago. Durangoko Museoko leihatilan egin daitezke emanaldi horretarako erreserbak.


Atzo aurkeztu zuten adinekoek antzezturiko jaialdia.


Kultur Etxean dago lehiaketara aurkezturiko lanen erakusketa.

# 25 partaide Berrizko pintura lehiaketan

Zapatuan egin zuten kaleko pintura lehiaketa

**> ARTEA** I. E.

Kaleko pintura lehiaketaren XVIII. edizioan parte hartu zuten 25 artistak herriko hainbat txokotan ibili ziren, joan zen zapatuan, Berrizko paisaiak euren koadroetan jasotzen. Urterik urte gora doa partaide kopurua, eta, aurten, Burgostik edo Asturiastik etorritako margolariek ere parte hartu dute.

Carlos Espiga margolariak irabazi zuen lehiaketako sari nagusia, epaimahaiak hala erabakita. Bigarren saria Fernando Uretari eman zioten, eta Eduardo Alsasuari hirugarrena. Margolari berriztar batek egindako lanik onenaren saria, bestalde, lehiaketa honetan hainbat sari jasotakoa den Txomin Pinillari eman zioten.

Zapatu arratsaldean egin zuten sari banaketa ekitaldia, eta Kultur Etxean daude ikusgai aurkezturiko lanak.

# Ikasturte amaierako emanaldia eskainiko dute musika ikasleek

Elorrioko musika eskolako 150 ikasle Arriola antzokian arituko dira, bihar

**> MUSIKA** Itsaso Esteban

Ilusio handiz prestatutako ikasturte amaierako entzunaldia eskainiko dute Elorrioko musika eskolako ikasle eta irakasleek, maiatzaren 20an, 18:30ean, Arriolan. Aurten, musikalak izango ditu ardatz ikuskizunak, eta musika eskolan ikasten duten bost urtetik aurrerako 150 ikaslek eta 16 irakasleek parte hartuko dute emanaldian.

Ikaslerik gazteenak abesbatzagaz batera arituko dira, eta marrazki bizidunetako soinu bandak eskainiko dituzte. Ondoren, askotariko instrumentistek eta kantuko ikasleek, marrazki bizidunetakoak ez ezik, telesailetako eta filmetako soinu bandak ere interpretatuko dituzte.

Doako sarrera izango du emanaldiak, baina aurrez gonbidapena eskuratu behar dute joan gura dutenek.



Marrazki bizidunetako, telesailetako eta filmetako soinu bandak joko dituzte bost urtetik aurrerako musikariek.

### Matrikulatzeko aukera

Ikasturte amaierako jaia prestatzen dabiltzala, hurrengo ikasturteari begira jarrita ere badaude Elorrioko Musika eskolan. Ekainaren 9ra arte dago 2017-2018 ikasturterako matrikula egiteko aukera. Eguenetan 14:30etik 16:00etara, eta barikuetan 18:30etik 19:30era, telefonoz (94-623 19 22 edo 605 761 312) zein emailez (*elorrioko.musikaeskola@gmail.com*) egin daitezke matrikulazioari buruzko kontsultak.

> Maiatzaren 26an, ate irekien saioak egingo dituzte musika eskola ezagutu gura dutenentzat

Bestalde, maiatzaren 26an, ate irekien saioak izango dira musika eskola ezagutu gura dutenentzat: 17:30ean, 4 eta 6 urte artekoei zuzenduriko bisitaldia egingo dute, eta 7tik aurrerakoentzat, 18:15ean.

## GEURE DURANGALDEA

**JON ANDER URKIAGA EGIDAZU**
Irakaslea



### Eman nahi dizut

Ez dugu elkar ezagutzen. Ez dakit zer pentsatuko zenukeen nitaz bestelako egoera batean ezagutzeko aukerarik izango bagenu, hogeita hamar urte barru-edo, demagun autobusaren zain markesina baten babesean edo ezein barra izkinatako eztabaida politiko sutsu-antzu batean. Baina, tira, gure bizitzak berandu orduko gurutzatuko dira, eta, bestelako situazioren batean, beharbada, errail bi baino elkargaitzagoak izango bagina ere, gaur-gaurkoz bizitza emango nuke zure alde, birritan pentsatu gabe.

Baina horren elementu iraungikorra da bizitza, non, pentsatzen hasi, eta lotsa ere ematen baitit hain estimatuko zaitudan horri kutxa metafisiko baten barneko airearen balio bera izan dezakeen elementu galkorra eskaintzeak.

Eta, elkar ezagutzen ez badugu ere, oinpean mundu hobe bat izan dezazun desio dut: maitasunerako espazio publiko gehiago, injustiziari lekurik eskaini behar ez dioten egunkarietako azalak, belazeetan oinutsik saltoka ibiltzeari eskainitako jai-egunak, ume izan barik sehaska kantak entzuteko plazerra…

Esango didazu nahiago dituzula telefono mugikorra edo plasmadun telebista. Ni, aldiz, amets egiteko eskubidea izan dezazun saiatuko naiz; beharra sentitzen duzun bakoitzean, negar anpuluz blai egin zaitezen lortu nahi izango dut; besarkada batek mila hitzek baino gehiagok balio duela jabetu zaitezen ahalegindu.

*Zaharregia, txikiegia* izan arren, *munduari begiratzeko modu bat* utzi nahi nizuke oinordetzan.

# Argiñetaren historia hartuko dute berbagai Durangoko Museoan

Erdi Aroko paisaiak dira Arkeologia eta Historia jardunaldien gaia aurten



Iñaki Garcia Camino arkeologoa jardungo da Argiñetaren historiaz.

**> ARKEOLOGIA** Itsaso Esteban

Bide erdia egin du dagoeneko Durangoko VIII. Arkeologia eta Historia jardunaldiak; zikloaren barruko bi hitzaldi asteon eta aurreko astean egin dituzte, eta beste bi izango dira datozen bi asteetan, aukeran. *Erdi Aroko paisaiak; herrixkak, basoak eta nekazaritzarako espazioak* izenburupean antolatu dituzte aurtengo lau berbaldiak.

Maiatzaren 25ean, *Un lugar donde vivir y morir: Argiñeta hace 1.200 años* izenburuko berbaldia eskainiko du Iñaki García Caminok. Bizkaiko Arkeologi Museoko zuzendaria da Camino, eta egun Argiñetako San Adrián ermita dagoen lekuan VIII. eta XI. mendeen artean zegoen herrixkaren eta hilerriaren inguruan jardungo da. Arkeologi Museoak 2012. eta 2014. urteen artean egindako azterketetan oinarrituko du Caminok bere berbaldia.

Ekainaren 1ean, bestalde, *¿Qué es un yacimiento arqueológico? La historia de los paisajes agrarios* hitzaldia eskainiko du Juan Antonio Quirós EHUko arkeologia katedradunak. Arabako hainbat adibide oinarri hartuta, Euskal Herriko nekazaritza-paisaien inguruan mintzatuko da katedraduna.

Belen Bengoetxea arkeologo durangarrak koordinatu du zikloa, eta Durangoko Museoan dira zikloaren barruko berbaldi guztiak, 19:00etan.





# OSASUN GIDA

## OPTIKA

**keinu** optometria zentroa

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

PSE: 162/13

## FISIOTERAPIA

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

**Trañabarren 13, 4. blokea, behea eskuma**
**48220 MATIENA-ABADIÑO**
**Tel.: 944 657 132 - 686 906 374**

PSE: 119/13

**PABLO ZUBIZARRETA**
FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA

**Muruetatorre, 2D - 48200 DURANGO**
**pzubizarreta@gmail.com**

**Tel.: 946 550 049**
**Mug.: 695 784 963**

PSE: 57/16

## PEDAGOGIA

**UGATZ**

**UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA**

*Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea, fisioterapia, logopedia*

**Juan Olazaran, 1 behea**
**48200 DURANGO**
ugatz@hotmail.es
**Tel.: 944 668 370 - 615 782 090**

PSE: 63/63

## PODOLOGIA

**PODOLOGIA KLINIKA**

**GOIATZ MURUA**
PODOLOGOA
**AINHOA ELORZA**
PODOLOGOA
*Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak*
**Monagotorre, 4 - behea**
**48200 DURANGO**
**Tel.: 946 203 630**

PSE: 148/13

## ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

**Laser berria:**
*Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra*

*Obesitatea-zelulitisa,*
*Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...*
*Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...*

**Txatxiena, 6**
**48200 DURANGO**
**Tel.: 946 810 387**

PSE: 16/09

## MEDIKUNTZA

**IGOTZ ARANBARRI**

Ezkurdi
osasun zentroa-centro médico

**DIABETESA DAUKATEN PERTSONENTZAKO ARRETA ETA LAGUNTZA ZERBITZUA**

**Askatasun Etorbidea, 23**
**DURANGO**
**Tel.: 946 81 81 81**

PSE: 40/17

## ODONTOLOGIA

clínicadental hortzklinika

**B. UNAMUNZAGA**
**E. ETXEBARRIA**
*ODONTOLOGIA OROKORRA*
*ETA ESPEZIALIZATUA*
**Muruetatorre, 2C - behea**
**48200 DURANGO**
*uecdental@gmail.com*
**Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454**

PSE: 145/13



**J.L. URRETA ZABALO**

*MEDIKU ESTOMATOLOGOA*
*IMQ, PADI (umeen hortz programa)*
*Ortodontzia*

**Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.**
**48200 DURANGO**
**Tel.: 946 812 200**

PSE: 112/13

## PSIKOLOGIA

**JON ARRUABARRENA**
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA
- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK
**Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO**
**jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz**
**Tel.: 946 033 246 - 629 245 728**

PSE: 62/11

# EGIN JAUZI KOMUNITATERA

ANBOTO komunikazio-taldeak elkarteei, eragileei eta norbanakoei atari digitaleko komunitatea izeneko atala eskaintzen dizue.



Zuen ekimenen berri emateko, edota artikuluak, argazkiak zein iritziak plazaratzeko. Animatu eta parte hartu!

## • *Komunitateko kide egiteko jarraibideak* •

*1.*
Sar zaitez www.anboto.org webgunean



*2.*
"Sartu" botoia sakatu izen-emate orrira joateko



*3.*
Bertan, hiru aukera dituzu izena emateko




*4.*
### *Facebook eta Twitter bidez*

Horrela erregistratzea errezagoa da. Facebook eta Twitter kontuagaz sartu gura duzula aukeratu eta, "Saioa hasi" aukeratu ostean, zuzenean kide izango zara.

### *Posta bidez*

•"Erabiltzaile berria naiz eta izena eman nahi dut" botoiari sakatu.
• Erabiltzaile izena aukeratu eta zure e-posta kontua sartu beharko duzu, norberak nahi duen pasahitzarekin. Adi! Ez du zertan e-mailaren berbera izan behar.
• Erabiltzaile izena eta pasahitza sartu eta komunitateko kide izango zara.

### *Komunitateko edukiak sortu*

• Behin komunitateko kidea zarela, "Sartu" botoia zegoen lekuan zure ikonoa ikusiko duzu.

• Zure ikonoari sakatu ondoren, "Gehitu edukia" botoiari eman eta edukiak sartzeko orrialdera eramango zaitu.

• Hainbat eduki sortu ahal izango duzu: iruzkinak, argazkiak, bideoak, artikuluak eta hitzorduak.

• Komunitatera igotzen dituzun hitzordu guztiak zuzenean agenda atalean agertuko dira.

Kirola


Iurretan hasi eta amaitu zen Emakumeen Birako lehen etapako irudia. M.Zuazubiskar

# Errenteriako etapagaz domekan amaituko da Emakumeen Bira

Munduko txirrindulari onenetakoak Euskal Herriko errepideetan dabiltza

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Munduko txirrindularirik onenetakoak Euskal Herriko errepideetan dira egunotan. Emakumeen Birak hirugarren etapa du gaur, eta Antzuolan hasi eta amaituko da. Domekan amaituko da Bira, Errenterian.

Urtero legez, Iurretan eman zitzaion hasiera, eguaztenean. Itzuliko etaparik laburrenak (50 km) Durangaldeko hainbat herri zeharkatu zituen. Esprintean erabaki zen irabazlea, eta azken metro horietan Marta Bastianelli italiarra izan zen azkarrena. Ziortza Isasi elorriarrak (Lointek) zorte txarra izan zuen. Lehenengo etapa horretan erori egin zen, eta belaunean min hartuta Bira bertan behera utzi behar izan zuen. Lourdes Oyarbidek (Bizkaia-Durango) ere erorikoa izan zuen, baina lasterketan jarraitzeko modua izan zuen eta etapako bigarren euskalduna izan zen, Ane Santestebanen atzetik.

Gaurko etapak Deskarga (2. maila) izango du mendate nagusia. Biharkoa lehen mailako Aralarko San Migel mendate gainean amaituko da. Domekan Errenterian hasi eta amaituko den azken etapa ere ez da nolanahikoa gogortasunari dagokionez, helmugatik hamar kilometrora Jaizkibeletik (lehen maila) igaroko direlako. Azken etapa biak eskalatzaileentzat dira aproposak.

### Klasikoa Van Vleutenentzat

Emakumeen Biraren hasieraren bezperan, Van Vleutenek Durango-Durango Emakumeen Saria irabazi zuen. San Juan Momoitiorako igoeran hautsi zen lasterketa. Orica taldeko Herbeherearrak aurrera egin eta bakarrik heldu zen Durangoko helmugara.

Euskaldunek azpimarratzeko moduko lana egin zuten. Eider Merino podiumera igo zen, hirugarren tokian, eta Ane Santestebanek seigarren amaitu zuen bere berragerpenean. Bizkaia-Durangoko Mavi Garciak hamar onenen artean amaitu zuen proba.

## Alain Ramirez elite mailako Bizkaiko txapeldun

> TXIRRINDULARITZA J.D. / M.Z.

Berriatuko txirrindularitza probak, Euskaldun Torneorako puntuak banatzeaz gainera, Bizkaiko txapelak erabaki zituen, eta Eiser-Hirumet taldeko ziklistak protagonitsa izan ziren. Alain Ramirez durangarrak elite mailako Bizkaiko Txapelketa eskuratu zuen. Bere taldekide Markel de la Fuente elorriarra, berriz, 23 urtez azpiko azpitxapeldun geratu zen. Elorriarrak gertu izan zuen txapela, baina esprintean Txomin Juaristi markinarra gailendu zitzaion.

## Gorospek eta Arregik txapela jantzi dute boloetan

> BOLOAK J.D.

Beñat Gorospek eta Jokin Arregik Bizkaiko Bolo Txapelketa irabazi dute. Gorosperentzat binakako bigarren txapela da eta Arregirentzat aurrenekoa. Zornotzako Gisetza bolatokian 22 bikotek hartu zuten parte. Azkenean, Gorospek eta Arregik osatutako bikotea gailendu zen, 850 puntugaz. Joseba Mandaluniz eta Markel Uribarri geratu ziren azpitxapeldun, 822 puntugaz.

## Santrokazetako pilota finalak jokatuko dituzte zapatuan

> PILOTA J.D.

San Trokaz Pilota Txapelketako irabazleak zapatuan, 18:00etan, hasiko diren finaletan erabakiko dituzte. Nagusien mailan Aitor Arabiourrutia eta Asier Aspuru abadiñarrek Iñigo Aurtenetxe eta Edorta Bilbao lezamarren kontra jokatuko dute. Gazte mailan eta lau t'erdiaren barruan, Gaizka Karregal galdakoztarrak eta Jon Garcia portugaletetarrak jokatuko dute finala. Partidu hauen aurretik Atxarte pilota eskolako gaztetxoen partiduak izango dira.

# Ecija, igoera faseko lehenengo koska

Joanekoa Tabiran jokatuko dute, zapatuan


Sodupen 0-2 irabazi zuten joan zen asteburuan. www.culturaldurango.org

> FUTBOLA J.D.

Durangoko Kulturalak Ecijaren kontra jokatuko du Bigarren B Mailara igo ahal izateko lehenengo kanporaketa. Joaneko partidua Tabiran izango da, zapatuan, 19:30ean. Itzuliko neurketa astebete geroago jokatuko dute, etxetik 800 bat kilometrotara. “Bidaia luzea eta han egingo duen beroa dira kanporaketa honetako eragozpen bi”, azaldu du Joseba Arana kirol zuzendariak.

Durangoko Kulturalak badaki Bigarren B Mailan jokatzea zer den. Aurretik birritan egona da maila horretan. Ecija, berriz, Bigarren Mailan aritutako taldea da. Etapa zail baten ostean, sasoi bateko loria berreskuratu guran dabiltza andaluziarrak. “Aurkari oso zaila izango da”, onartu du Aranak.

# Zornotza S.T. asteburu magikoaren atarian dago

Urrezko Ligara igotzeko finalera sailkatu daitezke

> SASKIBALOIA J.D.

Ametx Zornotza saskibaloi taldea Urrezko LEB ligara igotzeko finalera sailkatu daiteke asteburuan. Horretarako, Coviran Granada taldearen kontra Larrean jokatuko dituen partidu biak irabazi behar ditu. Lehenengoa barikuan jokatuko dute, 20:00etan, eta bigarrena domekan, 12:30ean.

Joan zen asteburuan Granadara egindako bisitan bi partiduetako bat irabazi zuten zornotzarrek. Lorpen handia da Granada mailaz igotzeko faboritonagusienetakoa dela kontuan hartuta. Garaipen hari esker, kantxa faktorea alde dute.

### Lau urtean hiru play off

Zornotzaren azken urteetako ibilbidea azpimarratzekoa da. Zilarrezko Mailan jokatzen ari diren lau urte hauetan hiru play off jokatu dituzte.


Ametx Zornotzako jokalariak Granadako garaipena ospatzen aldagelan.

# "Umeek euren betiko inguruan egon behar dute, eta futbolagaz gozatu beste edozeren gainetik"

Iurretako Gertasport, Amorebieta eta Zaldibarko Zaldua eskola futbolaren babeserako sortu den Plataformako kideak dira



Mikel Aranguren Gertasporteko presidentea, Argoitz Argote Amorebieta K.E-ko eskola futboleko arduraduna eta Karmelo Alonso Zalduako sailen arteko koordinatzailea Arripausueta futbol-zelaian.

> KIROLA Joseba Derteano

Futbola gainerako kirol guztiak itzalean uzten dituen erraldoia da. Txiki-txikitatik umeen ametsa beren idoloen parera heltzea da, eta guraso askorena semeek hori lortu dutela ikustea. Gora heltzen direnak gutxiengo bat dira, ordea. Askoz probableagoa da bidean geratzea. Hori horrela izanda, umeen artean zein punturaino lehenetsi behar da lehia jolasaren aurretik? Non dago bi ereduen arteko oreka adin jakin batera arteko umeen kasuan? Bizkaiko hainbat klubek plataforma bat sortu dute beste klub batzuen jardunbidea salatzeko. Eskola kirol adina (12 urtera arte) duten gaztetxoekin "salerosketan" dabiltzala diote. Gurasoak zein umeak etorkizun oparoago bategaz limurtzen dituztela salatzen dute, gaztetxoak eurengana batzeko, horrek izan ditzakeen arriskuak kontuan hartu barik. Horrez gainera, gurasoengan jartzen dute erantzukizunaren pisurik handiena.

Bizkaiko Eskola Futbolaren Babeserako Plataforma 42 taldek osatzen dute, tartean Zaldibarko Zaldua, Iurretako Gertasport eta Amorebieta daudelarik. Zalduak hartu-emanak hautsi ditu Abadiñogaz, eta Gertasportek beste horrenbeste egin du Durangoko Kulturalagaz, eurekin zebiltzan umeak fitxatzen saiatzeagatik. Baina ez dute euren kritika talde bitan zentratu gura. Egoera orokor bat salatu gura dute. "Klub batzuek zoratu egiten dituzte umeak eta gurasoak euren eskaintzekin, umeak oraindino horixe direnean: ume. Zertarako? Inguruko hamar umerik onenak talde berean batzeko. Egiten dutena umeak heztea da? Nire ustez, hori garaipena edo emaitzak beste edozeren gainetik jartzea da", salatu du Gertasporteko presidente Mikel Arangurenek. Zalduako koordinatzaile Karmelo Alonsoren ustez ere "9 urteko umeak onen eta txarren artean sailkatzen hasten bagara, okerreko bidetik goaz; adin horretan, dibertitzea da helburu behinena".

Plataformak babesten duen filosofiagaz bat datorrelako batu da bertara Amorebieta. "Umeek euren inguruan egon behar dutela uste dugu, eta futbolean gozatu egin behar dutela beste ezeren gainetik", azaldu du klubeko eskola futboleko arduradun Argoitz Argotek. Horregatik, umeei euren ikastetxeetako taldeetan ibiltzen uzten diete kimu adinera arte. Jardunbide horren aldekoak dira Zaldua eta Gertasport ere. "Umeak euren betiko lagunengandik, bere mundutxotik ateratzen baditugu, oinarrizko futbolak izan beharko lituzkeen printzipioak hausten ari gara", dio Alonsok. Gainera, Argoteren eta Arangurenen ustez, "umeak gehiago errenditu dezake inguru egoki eta ezagun batean badago".

Euren ateak ume denei irekita daudela diote, hobeak zein txarragoak izan. Beste klub batzuek, ostera, aukeraketa bat egiten dutela diote. Berdintasunagaz mozorrotutako aukeraketa izaten ei da sarritan. "Taldetik ez dutela umerik botatzen diote. Baina ume batzuek ez dute urte osoan jokatzen, gurasoak haserretu egiten dira eta urte amaieran badoaz. Ez dituzte botatzen, baina, zelanbait esanda, joatera gonbidatzen dituzte", dio Arangurenek.

Zaldibar herri txikia denez, beste mezu bat ere utzi gura du Alonsok. "Jakin dezatela, hiru ume eramaten badituzte litekeena dela beste batzuk jokatu ezinik geratzea, ez dagoelako taldea osatzeko ume nahikorik".

### Gurasoen erantzukizuna

Gurasoek zer erantzukizun dute

## "Neskek eta mutilek kirola elkarregaz egitea gura genuen"

2011tik multikirolak eskaintzen dituzte Iurretako Maiztegi Herri Eskolan

> ESKOLA KIROLA M.Z.

Azken urteetan Iurretako Herri Eskolan futbolak hartu zuen indarra ikusita, eskola orduetatik kanpo eskaintzen zituzten kiroletan aldaketak egitea erabaki zuten guraso elkarteko kideek, 2011n. "Futbolak eskolako umeengan zuen eragina ez zitzaigun gustatzen, eta, beraz, zerbait egin behar genuela erabaki genuen", adierazi dute Maiztegi Herri Eskolako guraso elkarteko kideek.

Gainera, garai hartan eskaintzen ziren ekintzetan —futbola, saskibaloia...—, sexu bereizketa egiten zela ikusita, beharrezkotzat jo zuten erabaki bat hartzea. "Guraso elkarteko kideok neskek eta mutilek kirola elkarregaz egitea gura genuen, eta garai hartan eskaintzen genituen kirolek ez zuten horretan laguntzen", adierazi dute.

Orduz geroztik, eta guraso elkarteak eta asanbladak erabakia aho batez hartu ostean, Maiztegiko 12 urtera arteko gazteek multikirolak dituzte eskolaz kanpoko ekintza moduan. "Ikasketetan espezializazioa 14 urte ingurura arte ematen ez dela ikusita, eskola honetan kirol espezializazioak ere lekurik ez zuela ikusi genuen", gaineratu dute elkarteko kideek.

### Osasunerako ona

Multikirolak hitzak berak dioen bezala, Iurretako gazteek hainbat kirol egiten dituzte ikasturtean zehar: saskibaloia, futbola, atletismoa, esku pilota, herri kirolak...

Guraso elkarteko kideen hitzetan, gaztetan hainbat kiroletan jardutea "onuragarria" omen da osasunerako. "Kirol mota ezberdinak egiteak lesioak saihesten dituela eta psikomotrizitatea lantzen laguntzen duela ikusi genuen hainbat txostenetan. Gainera, diputazioko kideek ere horixe berretsi ziguten, eta, beraz, gure erabakiagaz aurrera egitea erabaki genuen". Bestalde, beraiek eskainiko zuten diziplina berri horrek, gazteen arteko lehiakortasuna bultzatu beharrean, neskak eta mutilak elkarregaz jolastera eta ondo pasatzera bultzatzen zituela ikusi zuten guraso elkarteko kideek.

honetan guztian? “Erantzukizunaren %100, erru osoa eurena da”, Arangurenen ustez. “Maradona berriaren ‘Mara’ badutela-eta, ‘Dona’ horren bila doaz”. Buruagaz baietz diote bere solaskide biek. “Klubek eskaintza erakargarri bat egin dezakete, baina azken erabakia gurasoena da”, erantsi du Argotek. Ume batek futbolerako talentua badu, gora helduko dela uste dute, talde batean zein bestean egon. Azken batean, diotenez, “ez da normala ume bat hamar urtegaz hiru klubetan egon izana”. Klub bereko umeak mailaren arabera banatu daitezkeela diote, baina beti ere denei tratu berdina eskainiz.



> *“Beste herri batzuetako umeekin harremana izatea aberasgarria da”*
> UNAI SAGARNA

### Abadiño eta Kulturala

Unai Sagarna Abadiño K.E.-ko talde federatuen arduradunaren ustez, Bizkaiko Foru Aldundiak erantzukizun handia du honetan guztian. “Eurak dira mailak jartzen aurrenekoak liga desberdinak eratuta, eta, kakotx artean esanda, lehiara behartzen gaituzte”, dio. Baieztapen honegaz bat egiten dute bai plataformako hiru taldeek, bai Durangoko Kulturaleko kirol zuzendari Joseba Aranak. Era berean, azken erabakia gurasoek dutela azpimarratzerakoan ere bat datoz denak.



> *“Klub batzuetako gurasoengandik irten zen plataforma, euren intereserako”*
> JOSEBA ARANA

Sagarnak dio beste klub batzuek ez duten formakuntza eskaintzen dutela, eta gurasoek kontuan hartzen dutela hori. Horrela, onartu du ez dutela Abadiñoko edo herritik kanpoko umeen artean bereizketarik egiten, eta jokalarien kalitatea aukeraketarako osagai bat dela. “Ez diogu begiratzen nongoak diren. Taldeek eta dauden kategoriek eskatzen dutenaren baitan dago erabakia”. Umeak euren inguruan aritzeko komenigarritasuna zalantzan jartzen du. “Beste herri batzuetako umeekin harreman berriak egitea aberasgarria dela uste dut”. Abadiñoko ume denak hartzea gustatuko litzaiekeela dio, baina gaur egun ez dute tokirik.

Aranak dio gazte durangarren atzetik baino ez dabilela Kulturala kanpoan, eta galdera bategaz erantzun dio Gertasporti. “Zein da klub harrapatzailea, etxeko jokalariekin jokatu gura duena ala Iurretako kluba izanda Durangoko gazteak dituena?”. Kulturalak benjamin eta kimuetako taldeak oraintsu sortu dituela eta aurretik hutsune bat zegoela onartu du. Hala ere, harrezkero, Kulturalean bertan ez, baina Gertasport Durangoko ikastetxeetako gurasoekin harremanetan izan dela dio, euren proiektua saltzeko. “Ikastetxe batzuek hitzarmena dute edo izatekotan dira Kulturalagaz”.

Plataformari buruz bere iritzi pertsonala eman du: “Klub batzuetako umeen gurasoengandik irten zen, euren intereserako. Euren semei deitzen ez zietenez, gainerakoak taldean geratzea gura zuten, taldea lehiakorragoa izateko”.



Maiztegi Herri Eskolako gazteak.

# Futbola, gainerako kirolak itzalean uzteko ahalmena duen kirola

*Zer ikusi, huraxe ikasi* dio esaera zaharrak, eta umeek zein guraso askok hedabideetan ikusten dutenagaz egiten dute amets. Eta ikusten duten hori, gehienetan, futbola da. Bizkaian ez dago futbolari itzala egingo dionik. Oreka falta horrek zelan eragiten die beste kirolei? Futbolean ematen diren kasuak beste kirol horietan ere gertatzen al dira? Eta, horrela bada, zein neurritan ematen dira? Beste kirol batzuetako adituek kanpoko ikuspegia eman dute.

## *“Kimu eta haur-kategoria artean, umeen %75 inguru galtzen ditugu”*



**Txaber Agirre**
Durango pilota eskolako arduraduna

**Futbolak gizartean duen oihartzunak zelan eragiten dio pilotari?**
Futbola kirol nagusia da hemen. Pilotari ez ezik beste kirol askori ere eragiten dio horrek: atletismoari, igeriketari… Telebistan ikusten dena eta propaganda gehien duena futbola da. Gure kasuan, kimu mailatik haur-kategoria mailarako tarte horretan pilotarien %75 inguru galtzen ditugu. Adin batera heltzean, bi kiroletako bat aukeratu beharrean izaten dira, eta normalean futbola aukeratzen dute.

**Maila horietan umerik gehienak joaten zaizkizue.**
Bai. Batzuentzat kirol biak uztartzea ez da erraza, baina beste kasu batzuetan umeak gustura dabiltza bietan, eta gurasoek esaten diete bata edo bestea aukeratzeko. Umea talderen batek fitxatzen badu, ez dakit nor egoten den pozago: umea ala gurasoak. Uste dut futbola pilota baino kirol eramangarriagoa ere badela. Pilotan gurasoak hara eta hona ibiltzen dira seme-alabekin, herririk herri. Indibidualagoa da, etengabeko sostengu hori behar du. Futbolera taldean joaten dira, eta guraso batzuekin ez bada, beste batzuekin. Eramangarriagoa da.

## *“Eskola kirolean indar ikaragarria dauka futbolak”*



**Sonia Oceja**
Errugbi entrenatzailea eta Gorputz Hezkuntzako irakaslea

**Nolako pisua du futbolak eskola kirolean?**
Estatu guztian futbolak duen pisua izugarria da, eta eskola kirolean ere indar ikaragarria dauka. Eskolan, atsedenaldian, umerik gehienak zertan jolasten diren ikustea besterik ez dago.

**Futbolak umeak lehiara bideratzen dituela esan daiteke?**
Lehia, berez, gauza positiboa da, eta futbola ere ez litzateke negatiboa izan behar. Baina, egia da azken urteetan futbola kutsu negatiboa hartzen dabilela, bai eskola kirolean, bai mailarik gorenean, kirolak dituen gauza negatibo guztiak erakusten dabiltza eta. Hau da, biolentzia, lehiakortasuna, beste gauza guztien aurretik norbera eta norbere taldea onena izatea… Beraz, batzuek bultzatzen dituzten balioek kaltetzen dituzte gazteak zein futbola bera.

**Beste kiroletan ez dira horrelako balioak transmititzen?**
Ezetz esango nuke. Errugbian, esaterako, errespetua da balio nagusia, eta, ostean, esfortzua eta talde lana baloratzen ditugu. Gainera, 11 urtera arte gazteek ez dute sailkapenik izaten. Jokalari denek disfrutatzea da helburua.

## *“Bide parte-hartzailetik, jolasetik lantzea da gure helburua”*



**Unai Zamalloa**
Kurutziaga ikastolako eskola kiroleko arduraduna

**Norantz bideratu beharko litzateke eskola kirola?**
Bide parte-hartzailetik, jolasetik lantzea da gure helburua. Kirola egitea, talde moduan lantzea, euskara sustatzea, elkarbizitza lantzea, gorputzaren ariketa fisikoak bideratzea, elkar ezagutzea, kirola bera ezagutzea… Eskola kirola ez da lehia bakarrik.

**Kirol eskaintza zabala egiten duzue Kurutziagan.**
Multikiroletan, LHko 3. mailan ikastolan aukeran dituzte kirolak ezagutzen dituzte. Futbola, saskibaloia, eskubaloia, boleibola, pilota, atletismoa, errugbia, txirrindularitza… Durangon badago beste eskaintzarik ere, talde asko daude eta. Bestalde, gure entrenatzaileak ikasle ohiak izaten dira batez ere, talde lana indartzeko.

**Futbolean gertatzen dabilena ez doa bide horretatik.**
